



1.-JARDUERA FISIKOA ETA INTEGRAZIOARI BURUZKO AZTERKETAK ETA IKERKETAK

- 1.1. Irakaslearen ikuspuntutik**
- 1.2. Ikaslearen ikuspuntutik**
- 1.3. Antolakuntzaren ikuspuntutik**
- 1.4. Ikerketen laburpen-taula**

2.- HEZIKETA FISIKOKO PROGRAMAK BERRIKUSTEA

3.- ANALISI KRITIKOA

1.- JARDUERA FISIKOA ETA INTEGRAZIOAREN INGURUKO IKASKETAK ETA IKERKETAK

Heziketa Fisikoaren integrazioaren errealitatean kokatzeko, integrazioa gauzatzen den herrialdeetan eginiko ikerketak ezagutu nahi izan ditugu. Toki guztietan eskaria antzekoa dela ikus daiteke; irakasleen formazio falta funtsezkoa da, eta baliabide sofistikuak baino jarrera-aldaketa da beharrezkoena. Beste zentzu batean, irakasleentzako programetan eta gidetan diseinu-gabezia eta emaitzetatik ondorioak orokortzeko zailtasuna dago, kontuan hartuz diseinu esperimental bakoitzean parte hartzen duen subjektuaren ezaugarri pertsonalak.

Integrazioaren inguruan egindako ikerketa eta esperientzia anitzek agerian uzten dituzte ezaugarri orokor batzuk, bai azertu beharreko aldagaiei dagokienez, bai lortutako emaitzei dagokienez. Alderdi horiek aztertzeko, hiru ikuspuntutatik aipatuko ditugu aldagaiak:

- Irakaslearen ikuspuntutik (3.4.1)
- Umearen ikuspuntutik (3.4.2.)
- Antolakuntzaren ikuspuntutik: erakundeak, profesionalak (3.4.3)

1.1.- IRAKASLEAREN IKUSPUNTUTIK.

Irakaslearen ikuspuntua bi prismatik aztertuko dugu:

A. Irakaslearen itxaropenen garrantziak baldintzatu egiten du umearen beraren garapen-prozesua, umearen errendimenduaren eta eboluzioaren alde edo kontra. Alan Brown-ek (1987) honela dio gai horren inguruan: «Irakaslearen itxaropenen eta ikaslearen ekintzaren artean beti egon da korrelazio altua. Horregatik, garrantzitsua da umearen gaitasunak lantzerakoan jarrera positiboa izatea eta horiek abiapuntu gisa hartzea. **Umeak lor dezakeena bultzatu behar da beti, bakoitzaren ezgaitasun partikularren muge barruan...».**

Karper-ek eta Martinek-ek (1985) diote irakaslearen itxaropenak honako hauekin duela zerikusia:

- ikaslearen esfortzuaren pertzepzioa
- errendimendu motorra
- ikaslearen estimuluaren gorakada
- irakaslearen eta ikaslearen kontaktua gehitzea
- irakasleak motibaturiko esfortzua gehitzea
- ikaslearen ideia gehiago onartzea
- irakaslearen esfortzuaren jokabidea

Irakasleek kontuan izan beharko lukete, ume guztienganako duten itxaropenak eragin erabakiorra izan dezakeela ikasgelako giroarekiko, bakoitzaren gaitasunak eta zailtasunak alde batera utzita; giro horrek bultzatzen dezake ikasleak bere buruarekiko egiten duen balorazioa, eta haien ikasketetan eta errendimenduan eragin dezake.

Santomier, Craft, Hogan, eta Wughalter-ek (1983) eta Santomier-ek (1985) *mainstreamingerako* hezitzaile fisikoen iritziak aztertu zituzten, eta gehienek erantzun zuten iritzi negatiboa zutela urritasun txikiak zituzten umeak heziketa fisikoan integratzearen eta integratuak izanik lortutako emaitzen inguruan. Ikerketa berean behatu zen heziketa fisikoa integrazio-egoeran irakasten zuten irakasleak ez zeudela horretarako prestatuak. Egoera horrek eragin negatiboak ekar ditzake irakasleen iritzi eta jarrerarekiko.

Santomier-ek (1985) «etiketa sinbolikoaz» hitz egiten du, irakaslearen jarrera negatiboaren eragin gisa. Stevenson-ek (1975) etiketa sinbolikoa sozializazio sinbolikoaren kontzeptu gisa identifikatu zuen, horrela norbanakoa giza rol berezi batekin indentifikatuz. Heziketa fisiko integratuan, ikasleak sinbolikoki etiketa ditzakete hezitzaile fisikoen jardueraren aukeraketa-prozesuaren bidez eta rolak zehaztuz.

Santomier-ek (1985) irakasleen hezitzaileentzat estrategiak planteatu zituen. Etorkizunean izango diren irakasleen heziketa hobetzeko aholkuen egokitzapena egiten du eta Filler (1982) berziklatzen du. Irakaslearen jarrerak eta iritziak honako faktore hauekin erlazionatuta egon daitezke: *HBBko umeen irakaskuntzarako interesa, heziketa fisiko egokituarekiko ezagutza eta beren klaseetara umeak egokitzeko duten abilezia*. Faktore horiek banan-banan aztertuz gero, behatuko da HBBko umeekin lan egiteko Heziketa Fisikoko irakasleen interesa bultzatzen duten estrategiak daudela. Hauek dira horietako batzuk:

- Hezitzaile fisikoekin harremana izateko urritasun ezberdineko pertsonak gonbidatu.

- Bilerak egitea irakaskuntza, giza elkarrekintza eta sentimenduen inguruko kezka elkarbanatzeko.
- Kirolean maila altuko pertsona ezinduen bideoak, diapositibak, eta abar behatu.
- Lehiaketetara, kirol-ospakizunetara, ospakizun artistikoetara joan eta jarduerak antolatu ezinduek parte hartzeko.
- Hezitzaile fisikoak ezintasuna duten atletekin tartekatu.
- Hezitzaileak bultzatu ezintasun egoera ezberdinetatik abiatutako jarduerak gauzatzera.
- Profesionalak behatu heziketa fisiko integratuan, jarduera fisiko egokituaren eta kirol egokituko saioetan.

Bestalde, ezagutza-estrategiak dira hezitzaileen irakasleek erabiliko dituzten estrategiak, horiei informazio egokia eskaintzeko. Beste batzuen artean, HBBdun umeentzat eginiko programen helburuak zehaztea.

Weiss-ek (1980) eta Santomier-ek (1985) helburu batzuk ezarri zituzten:

- a) Ezintasun-mugen barruan, garapen fisiko optimoa laguntzea.
- b) Mugen barruan, abilezia motor optimoa garatzea.
- c) Jarduera fisikoetan parte hartzeko ohitura garatzea, mantentzeko eta atsegina hartzeko.
- d) Jarduera fisikoaren ezagutza eta ulermena garatzea.
- e) Muga eta zailtasun pertsonal eta sozialen onarpen positiboan laguntzea.
- f) Jarduera fisikoan segurtasun-ohiturak garatzea.
- g) Heziketa Fisiko egokituaren arloarekin erlazionaturiko helburuak adieraztea.

Weiss-ek (1980) eta Santomier-ek (1985) helburu fisikoak, sozialak, emozionalak eta intelektualak adierazten dituzte:

- *Helburu fisikoak* erreferentzia egiten die oinarrizko gaitasun fisiko guztiei, perspektiba-gaitasunei, kualitate fisikoei eta motrizitatearekin erlazionaturiko guztiari.
- *Helburu sozialek* autonomiari eta pertsona arteko erlazioei egiten diete erreferentzia.
- *Helburu intelektualak*, ez-ahozko komunikaziori begira, adierazpen-eremuaren gorakadari eta ikusmin handiagoa eskuratzeari laguntzen dio, arreta-maila altuagoa eta lan-ohituretan hobekuntza erakutsiz.
- *Helburu emozionalek* autobalorazioari, arrakastari eta lorpen-sentsazioei egiten diete erreferentzia. Klase integratu baten barnean funtzionatzen duen dinamika psikosoziala eta giza onarpenaren irakaskuntzarako eragina identifikatzea eta azaltzea.

HSAOLen erreferentzia egiten zaie aniztasunaren onarpenari, sexu-ezberdintasunekiko errespetuari, arrazari, giza estatusari, eta antzeko zeharkako edukiei. Beharrezkoa da ezagutza eta esperientzia egokiak eskaintzea, hezitzaile fisikoek bakarkako argibideak eta oinarriak ulertu eta HBBko umeak heziketa fisikoko klase arruntetan aritzeko. HBBko umeak klase arruntetan aritzeari dagokionez, Weiss-ek (1980) aholkatzen du gaitasun fisikoen ezaugarriak ezagutzea, irakaskuntzarako ezaugarri horiek dituzten eraginez konturatzea, egokitze, jarduera, metodologia, ingurune eta abarreko formak ezagutzea, egokitze mota ezberdinentzat aldaketak aukeratu edo diseinatzea, eta egokitze mota ezberdinentzat gidalerroak ezartzea.

Horri dagokionez, Utley-k eta Sudgen-ek (1995) diote Lehen Hezkuntzako heziketa fisikoko irakasleek duten esperientzia aprobetxatu behar dutela, maila ezberdineko gaitasunen irakaskuntza praktikorako; izan ere, beren egunerokoan gauzatzen duten zerbait da. Warnock txostena (1978) erreferentziatzat hartzen badugu, HBBko umeen % 20tik % 18 beti eskola integratuetan egon da. Beraz, HBBko umeen heziketa fisikoaren irakaskuntza «ongi gauzatzen diren praktiken luzapena da», abilezia berriak eta ezberdinak eskuratzea izan beharrean.

HBBko umeak kokatzearen inguruan eginiko ikerketek honako hau jasotzen dute:

Broadhead-ek (1985) dio, esperientziaren ondorioz, izaera baxuko HBBko ume gehienek heziketa fisikoko klase arrunteko curriculum jarrai dezaketela. Bestalde, AEBko 94-142 Lege Publikoak dio *handicap*dun umeek heziketa fisiko arrunta jaso behar dutela, aurrez bereziki diseinaturiko curriculum eskatu ez baldin bada.

Broadhead-ek (1982) egindako ikerketak, **MAINSTREAMINGa LORTZEKO PARADIGMAREN (PAM)** eraginkortasunean oinarritua baina, era berean, **ADMINISTRAZIO DISPOSITIBO bidezko MAINSTREAMING (MAD)** prozeduren efikaziarekin kontrastatua, agerian utzi nahi du integrazioarako programa espezifiko baten eraginkortasuna eta Estatuaren departamenduak diseinatutakoaren edo administrazioak ezarritakoaren eraginkortasunaren arteko ezberdintasuna. Lehenengoa, gutxien mugatutako ingurunean HBBko umeentzat heziketa fisiko arrunta eta diseinu berezikoaren horniketa anitza azaltzen duen eredua da; bigarrenak, aldiz, AEBn departamentu batzuek (1978an Louisiana estatuko Hezkuntza Departamenduak) sortu zituzten gidalerroei egiten die erreferentzia; horien bidez, HBBko umeek integrazio-egoeran klaseak jasoko lituzkete, bai curriculum arruntaren bidez, bai jarduera fisiko egokituen bidez.

Lanaren ondorio gisa, honakoa dio: biek eskaintzen die HBBko umei heziketa fisikoan kokatzeko laguntza, baina ez da bietako inor definitibotzat hartu behar. Integrazioak arrakasta izateko, HBBko umeak gela arruntetan kokatze

hutsarekin ez dela lortzen ulertu behar da. Hori erabakitzeko, umea gehien ezagutzen duten irakasleek eta jaso behar dutenek hartu behar dute parte. Programaren barruan umeak duen garapenaren aholkatze jarraitua egin behar da. Horrek epe laburreko helburuak berrikusi beharra dakar, eta jokabide motorrak eta motorrak ez direnak behatu behar dira. Heziketa Fisikoko irakasleen eta hezitzaile berezien artean bilerak egingo dira. Azkenik, urteko informeak erlazionatuko dira azken ebaluazioa eginez eta heziketa fisiko egokia segurtatuz.

McClenaghham-ek (1981) azaldu zuen faktore ugari ebaluatu behar direla HBBko umea gela arruntean kokatzerako orduan.

Diamon-ek (1979), Parker-ek (1980) eta McClenaghham-ek (1981) behatu zuten erabakia askotan beste arrazoi batzuetan oinarritzen dela eta ez ikasleak ingurune horretan funtzionatzeko dituen gaitasunetan. Era berean, nahiz eta normalizazio kontzeptua helburu hezitzailetzat oso aholkagarria izan, behatu zuten heziketa-sistemak eman dezakeena baino gehiago hitzematen zuela.

Programa arruntean, HBBko ikasleen integrazio desegokiak, askotan, heziketa berezia baino mugatuagoa dela dirudi. Ingurune integratuan arrakastarik ez duen umea, askotan, frustraturik sentitzen da irakasleak duen itxaropen-mailaren eta umearen ekintza-gaitasunaren artean,.

Urritasun motorra duen umea programa arruntetan barneratu behar da, ezintasunak parte-hartze osoa galarazten ez dion bitartean. Urritasun handieneko umeek aukerako kokatzea izan behar dute. Umerik gehienak ingurune integratuan arrakastaz barnera daitezke; hala ere, ez da pentsatu behar HBBko ume guztiak heziketa fisikoko klaseetan barnera daitezkeenik.

Santomier-ek planteatzen duen *ezagutza-estrategiekin* jarraituz, kontuan izan behar da hainbat ezintasunen etiologia, ondorio eta ezaugarrien informazioa eskaintzeko beharra. Aldi berean, eskaini behar dira heziketa fisiko egokituko irakaskuntzarako teknika, ebaluaziorako eta neurketarako instrumentuak eta teknika, eremu kognitibo, afektibo eta psikomotorrekin zerikusia duten heziketa-planen

garapena, klaseko portaeraren kudeaketa, talde eta materialen aukeraketa, eta estres pertsonala tratatzeko/kudeatzeko informazioa.

Hirugarrenik, Santomier-en arabera, **abilezia-estrategiak** garatuko dira. Estrategia horiek erreferentzia egiten die hezitzaileek integrazio-egoeran eraginkortasun handiagoarekin jarduteko garatu beharreko abileziei. Talde horretan barneratzen dira, Weiss-en (1980) eta Santomier-en (1985) arabera, hezitzaile fisikoek menderatu beharko lituzketen eginkizunei eta gaitasunei dagozkien estrategiak.

Urritasunak dituzten pertsonentzako, honako gaitasun hauek sartu beharko lirateke Heziketa Fisikoko programa baten plangintzan eta antolaketan:

- a) programaren helburuak identifikatzea
- b) alderdi kognitibo, afektibo eta motorren helburu espezifikoak identifikatzea
- c) helburu espezifikoak lortzeko irakaskuntza-esperientziak identifikatzea

Programa gauzatzeko ingurune fisiko egokia eskaintzeko eginkizunak honako hau eskatzen du:

- a) Jarduera fisikoa egiteko eremuaren egokitasuna epaituko duten irizpideak identifikatzea.
- b) Programarentzat beharrezkoak diren instalazio motak identifikatzea.
- c) Programarentzat beharrezkoa den taldea eta horien iturriak identifikatzea.
- d) Irakaskuntza hobetuko luketen laguntza motak identifikatzea.

Bana-banako programak planifikatzeak honako gaitasun hauek eskatzen ditu:

- a) Urritasun-egoerak eta horiek irakaskuntzan eta heziketa fisikoko parte hartzean duten eragina identifikatzea.
- b) Urritasun bakoitzarentzat egokia den aholkularitza-prozedura identifikatzea.
- c) Urritasun bakoitzarentzat irakaskuntza-esperientzia aukeratzea.
- d) Irakaskuntza-esperientzien garapenerako eta emaitzetarako, ebaluazio-prozedura identifikatzea.
- e) Irakaskuntza-esperientzia indibidualak hobetzeko entrenamendu-estrategiak aukeratzea.
- f) Eskolaren eta komunitatearen baliabideak identifikatzea, bakoitzak eman dezakeen informazio mota kontrastatzeko, ikasleari aholku emateko eta irakaskuntza-esperientzia egokiak planifikatzeko.

Heziketa Fisikoa antolatzeko eginikizunen planifikazioak honako gaitasun hauek eskatzen ditu:

- a) Ikaslearen estatusa eta garapena jasotzeko datu-orri egokiak identifikatzea.
- b) Ikaslearen osasunarekin eta segurtasunarekin erlazionaturiko planifikazioaren alderdi garrantzitsuak identifikatzea.

Heziketa Fisikoan programa indibidualak eta taldekoak egiteko eginkizunak honako gaitasun hauek eskatzen ditu:

- a) Medikuen txostenak eta ebaluazioa kontuan izanik, jarduera fisikoetan parte hartzeko tolerantzia-mugak zehaztea.
- b) Jarduera fisiko egokituaren programa kontuan izanik, jarduerak sortzea.
- c) Unitatearen hasieran, ikaslearen gaitasunak eta mugak aholkatzea.
- d) Unitatearen barnean, ikaslearen gaitasun-mailarekin bat datozen jarduerak aukeratzea.
- e) Eginkizuna osagai errazetik zailenera gauzatzea.
- f) Unitatearen barnean jarduerak irakastea, irakaskuntza-estrategia eta laguntza egokiak erabiliz.
- g) Motibazio-teknikak erabiltzea.
- h) Irakaskuntza-esperientziaren garapena ebaluatzea, eginkizun, erritmo eta instrukzio-estrategia sekuntzien inguruko eraldaketa eta erabaki-hartzeak oinarri hartuta, eta hurrengo unitatera pasatzeko prestaketa egokitzat hartuta.
- i) Epealdiaren amaieran, ikaslearen errendimendua aholkatzea.
- j) Informazioa balioestea, ikasle, guraso eta zentroko beste pertsonak aholkatzea eta errendimenduaren inguruan (planteaturiko helburuen garapen-erritmoa) eztabaidatzea.
- k) Beste pertsonekin lankidetzan aritzea baliabide gisa, adibidez.

Heziketa Fisikoko programak modu eraginkorrean (banakoei aplikatuta) ebaluatzeko eginkizunak honako gaitasun hauek barneratzen ditu:

- a) Programaren barne-arrakasta ebaluatzea, parte-hartzaileen errendimenduaren arabera osagai ugari kontuan hartuz.
- b) Irakaskuntza-metodoak ebaluatzea.
- c) Programa aurrera eramateko beharrezko administrazio-prozesuak ebaluatzea, bertan barneratuz klaseetako ordutegia, aholkularitza eta datu-biltze prozesuak.
- d) Programan aldaketak egiteko aholkuak gauzatzea eta oinarritat jasotako datuak eskaintzea.

Heziketa Fisikoko programentzat ingurune emozional eta sozial egokia eskaintzeko eginkizunak honako gaitasun hauek eskatzen ditu:

- a) Norberaren arazoak ulertzen eta onartzen ikastea.
- b) Norberaren arazoak ulertzea eta konpontzea.
- c) Norberaren arazoen eta besteen arazoen tratamenduaren arteko erlazioa erabat ulertzea.
- d) Irakaskuntza-estilo eremu zabal bat aukeratzea eta erabiltzeko gaitasuna garatzea.
- e) Helburu afektiboak identifikatzea.
- f) HBBrik gabeko ikasleak heziketa fisiko integratuan ongi sentitzeko estrategiak aurkeztea.

Irakaslea, era berean, ezintasunak dituzten umeen estatusa hobetzen saiatu behar da, laguntasuna, bikotekako irakaskuntza, kooperazio-proiektuak, balioen hezkuntzari eta ezintasunak dituzten pertsonen buruzko liburuak irakurriz.

Liddle & Breihan (1980), Weiss (1980), Moracco (1981) eta Santomier (1985) autoreek honakoa lortu nahi izan zuten:

- a) Ingurune psikosoziala egituratzeko teknika egokiak garatzean, hezitzaile fisikoei klaseko portaeraren kudeaketa teknikak azaltzea eta barneratzea, horrela, ume guztiek arrakastadun irakaskuntza-espereziak bizi ahal izateko.

- b) Klaseko denbora-kudeaketarako esperientziak eskaintzea, banakako arretan beharrezko denbora erabiltzeko.
- c) Gurasoekiko harremanen esperientziak eskaintzea, eta umearen behar bereziei aurre egiteko beste profesionalekin lan egitea.
- d) Hezitzaile fisikoak estres pertsonalaren kudeaketarako tekniketan barneratzea.

B. Gelako programa orokorraren eta irakasleen laguntza-beharraren barruan, irakasleak ume bakoitzari egokitzen zaion programa sortzeko beharra.

Garrantzitsua da beste profesionalen (medikuak, psikologoak, logopedak, fisioterapeutak eta abar) eta gurasoen laguntza, bakarkako programak planifikatzeko.

Esan daiteke heziketari dagokion giza ereduak mugigaitz izateari utzi diola. Horri esker, askotariko jarrerak ari dira sortzen, subjektuari aukera emanaz beharraren araberrako erlazio motak sortzeko. Carlos Mas-ek (1984, 44. or.) honako hau ondorioztatzen du bere lanean: «Orain, eskolako integrazio-prozesuari dagokionez, antolaketari edo ekonomiari dagozkion arazoak azal daitezke, baina ez heziketa-ereduaren baliagarritasunari dagokionez».

Groner-ek (1983), «aniztasunari arreta» jartzearen ildoan, askotariko pedagogiak ezartzea kontuan hartuz honela dio: «iraganean beharrezkoa izan zen Heziketa Fisiko Berezia sortzea, eskola arruntetatik bereizita. Orain, ume bakoitzak irakaskuntza *aske eta egokia* izateko duten eskubidea onartzeak aukera emango digu ume gehiagori programa orokorrangoetan heziketa berezia eskaintzeko». Dirudienez, indibidualizazioa ez da nahikoa izango. *Handicap*dun umei eskola arruntetan parte hartzeko aukera emango dien sistema malguarekin bateratu behar

da. Profesional gisa, gure helburua ez da heziketa bereziaren integrazioan jardutea, ume bakoitzarentzat heziketa berezia ziurtatzea baizik eta, oro har, errealagoa egitea ume bakoitzarentzat «berezia» den heziketa-sistema baten ikuspegia.

Heikinaro-Johansson-ek, Sherrill-ek, French-ek eta Huuhka-k (1995) eginiko ikerketa heziketa fisiko egokitan kontsulta-eredu bat garatzean eta aztertzean oinarritua dago; izaera orokorreko heziketa fisikoan, oinarrizko irakaskuntzako (Espainiako Lehen Hezkuntzako) irakasleei lagundu nahi zaie HBBko umeen integrazioan. Finlandiako bi herrialdetan egin zen lan hori, bi motatako kontsulta erabiliz: bata intentsiboa eta bestea mugatua.

Emaitzen arabera, irakasleak (Espainian hezitzaileak) eta ikasleak arketipoaren onurak jaso dituzte, eta horrek ziurtatzen du HBBko umea integrazeko heziketa fisiko egokitan eginiko kontsulta-eredua guztiz positiboa dela.

1.2.- UMEAREN IKUSPUNTUTIK.

Umeek aniztasuna onartzeko **jarrerak** ikasi beharko dituzte. Brown-ek (1987) hala dio bere lanean: «esperientziaz dakigu umeek ezintasunak dituzten kideak onartzen dituztela, inongo arazorik gabe, eta laguntza handia eskain dezaketela». Santomier-ek (1985) ezberdintasun indibidualak onartzea estimulatzeko duen ingurune psikosoziala ezartzearen azterketa egiten du. Horri dagokionez, «indibidualtasun ezberdinak onartzeak irakaslearen planifikazio askea eskatzen du; klasean *handicap* duen umea onartzeko oinarrizko eragina da. Horrek, era konstantean, ahozkoak eta ez-ahozkoak diren jarrerak komunikatzen ditu, ezberdintasun indibidualak kontuan hartuz». Santomierrek (1985) berak proposatzen du irakasleek HBBrik gabeko umeentzat estrategiak antolatzea, haiek heziketa fisiko integratuko klaseetan ongi senti daitezten. Filler-ek (1982) eta Santomierrek (1985) aholkatzen dute ikasleei ezberdintasun indibidualen garrantzia azpimarratzen duten egoerak ezagutaraztea, informazioa eskaintzea, eta aurrez aurre jartzea ezberdintasun fisikoen eta ikasleen jokabideen aurrean. Mas-ek bere lanean garrantzia ematen dio zentro integratuetan aritzen diren umeek jasotzen duten

bilakaera onuragarriari, guztiok bizi eta behatzen ditugun egoeren aldaketa eta eboluzioa bizitzen baitute. Desabantaila duten umeekiko, ikasleen artean talde peioratiboaren kalifikazioa edo aipamena desagertu egiten da, eta talde-jarduerak erabiltzen diren geletan lankidetzaren harremanak sortzen dira. Mas-ek ziurtatzen du iniziatiba-gaitasuna handitu eta dependentzia-harremana gutxitu egin dela.

Williams-ek eta Scherril-ek (1989) heziketa fisiko integratuan umeen jarrerarengan eginiko ikerketak agerian utzi zuen, eskola normalizatueta integraturiko HBBko umeekin izandako kontaktuak ez zuela jarrera-aldaketa esanguratsurik ekarri HBBrik ez zuten umeengan. Sherril-ek (1988) aurrez eginiko ikerketetan, integratuzko heziketa fisikoa ingurune egokitzat jotzen duten pertsonak honako alderdi hauek azpimarratzen zituzten integrazioan:

- a) HBBko umeak estatus bereko ikusten zituzten haien kideek.
- b) Jarduera fisiko integratuak positiboak ziren eta betetasuna eskaintzen zuten.

Hala ere, naturalki eta berez sortzen diren kontaktuen mende egotea ez da eraginkorra. Horne-k (1985) eta Jones-ek (1984), heziketa bereziaren inguruan ikerketak egin ondoren, arduraz egituraturiko eta diseinaturiko elkarrekintzak eskaintzea aholkatu zuten, heziketa fisiko integratuko jarrerak hobetzeko. Horrela, etorkizunean kontaktuaren eraginaren inguruan egingo diren ikerketek kontuan hartu beharko lituzkete kontaktu positiboak hobetuko dituzten aldagai pertsonalak eta egoera-aldagaiak, eta ziurtatu beharko lukete ezintasuna duten ikasleak gainerako ikasleak bezala hartuko dituztela.

Hottendorf-ek (1989) entzumen-urritasuna duten umeek dantzako eskoletan eginiko integrazioaren esperientzia aurkeztu zuen. Integrazioa bi eratarik egin zen:

Lehenengoa, Holcom-ek eta Corbett-ek (1975) alderantzizko integrazioa (*reverse mainstreaming*) izendatu zutena, integratuzko bide bezala, gorak ez diren umeak gorrentzako programara ekartzen oinarritzen den praktika da.

Bigarrenari, Soder-ek (1980) eta Hottendorf-ek (1989) integrazio osoa (*full mainstreaming*) izena eman zioten. Haien arabera, urritasuna duen ikaslea bere gaitasunak eta mugak dituen beste ikasle bat da. Hottendorfek (Heziketa Fisikoko irakaslea eta Washington-eko Gallaudet Unibertsitateko «Gallaudet Dance Company»ko zuzendaria) gogorarazten du, 1987an, Heziketa eta Gorren Batzordeak

informatu zuela entzumen-urritasuna duten ikasleen % 70 eskola publikoetan hezten zela eta joera horrek jarraitu egingo zuela *Education of the Handicapped Act*en arabera. Pertsona gorrei dantzako eskolak hartzeko aukera kentzeari buruz zioen, funtsean, sineskera okerre eta irakasleak zeinuen hizkuntza erabiltzeko abilezia ezari dagokiola. Irakasle batzuek uste dute entzun gabe ezin dela dantzatu; Hottendorf-en arabera (1989), «pertsonak berezkoa du barne-erritmoa lortzeko gaitasuna, eta ez du zerikusirik entzumen ona edo txarra izatearekin». Dr. King Jordan Gallaudet Unibertsitateko lehen presidente gorra dio «gorrek, entzutea izan ezik, beste guztia egin dezakete».

Ildo horretan, Ipar Carolinako Unibertsitatean Harper-ek eta Martinek-ek oinarritzeko heziketa fisikoan eginiko ikerketak (*handicapa* duten edo ez duten ume integratuen inguruan eta, zehazki, *errendimendu motorrari* buruz) honakoa adierazten du: gorputz-koordinazioaren test-ean, irakaskuntza- eta jokabide-arazo txikiak zituzten umeek *handicapik* gabeko umeek programaren hasieran eginiko aurretest-ean baino maila baxuagoak lortu zituzten, baina ez heziketa fisikoaren programa amaierako posttest-ean lortutako emaitzak baino askoz baxuagoak. Aurreko ikerketek erakutsi dute *handicapik* gabeko umeek adimen-atzerapena duten ume hezigarriek baino emaitza hobekak lortzen dituztela; horiek, era berean, adimen-atzerapena duten ume entrenagarriek baino emaitza hobekak lortzen dituzte jarduera motor eta fisikoetan (Ulrico, 1982).

Autokontzeptuari dagokionez, autoreek diote programa integratuek autokontzeptua areagotzen dutela. Gainera, irakaslearen itzaropenen atalean, umearen autokontzeptu-mailak dira irakaslearen itzaropenen funtzioetako bat. Abelson-ek eta Staley-k (1982) eta Craft-ek eta Hogan-ek honela definitu zuten autokontzeptua: subjektuek beren burua eta beren sentimendu positiboak eta negatiboak deskribatzeko erabiltzen dituzten ahozko etiketak. Craftek eta Hoganek

(1985), heziketa fisiko integratuan, autokontzeptuaren eta autoefizientziaren garapenerako eraginak ikertu zituzten. Bien arteko erlazioan oinarrituz, batean gertaturiko aldaketak bestearen aldaketa eragin dezake. Bandura-k (1977) eta Craftek eta Hoganek honela deskribatzen dute autoefizientzia: subjektuak egiteko gai den horretan duen sinesmena. «Ingurunearekin izandako elkarrekintza afektiboetik

sorturiko esperientziak eraginkortasun-sentsazioa garatzeko oinarriak eskaintzen ditu» (Bandura, 1981).

Ikerketek diote *handicap*dun gazteen eta umeen autokontzeptua zehazten duten faktoreak direla ongizate fisikoa, abilezia motorra eta gaitasun atletikoa. Abileziak menderatzeak eta esperientzia berriek *handicap*dun pertsonen autokontzeptua hobetu dezakete; eta autoefizientzia proposatzen da autokontzeptuan gertatzen diren aldaketak ulertzeko oinarri gisa (Craft eta Hogan, 1985). Autore horiek Heziketa Fisikoko irakasleen praktikarako estrategiak eskaini zituzten, *handicap*dun umeen autoefikazia eta autokontzeptua hobetzeko helburuarekin,.

Brown irakasleak (1987) *Active games for children with Movement Problems* liburuan hitz egiten du Heziketa Fisikoko irakaslearentzat mugimendu-arazoak dituzten umeak kirolaren curriculum orokorrean integratzea den erronkaz.

*Northumberland Local Education Authority*rentzat (herriko foru aldundia) eginiko aholkulari-lanetan, eskola-zentroei aholku emanaz, baieztatu izan zuen, agertzen ziren arazoez gain, faktore nagusia loturik zegoela umearen potentzial motorrari eragiten zion ezintasun-mailarekin. Hala ere, bana-banako irakaskuntza gauzatu daitekeen jardueretan (gimnasia, dantza, atletismoa eta igeriketa, nahiz eta batzuetan jarduerak binaka egin daitezkeen), integrazioan ez da arazorik izaten. Bigarren Hezkuntzan, kirolaren irakaskuntza jarduera-taldearen lankidetzan eta aurkariarekiko lehia oinarritzen da, baina arazo batzuk izaten ditu. Horiek gainditzeko, Groves-ek (1987) etapa ezberdinak proposatzen ditu kirol-programan HBBko umea integratzeko prozesuan. Ideia horrekin aurkaritzan, integrazioan bana-banako irakaskuntzaren beharra dago; Minnesotako Unibertsitateko irakasleek (Schleien, Mustonen eta Rynders) eta Fox eskolako autismo-programaren

koordinatzaileek Minnesotako eskola batean ikertu zuten ume autisten jokabide ludikoan giza jarduera ludikoek duten eragina. Ikerketaren helburua zen ikertzea ume autistek ez dutela banakako jolasa indartzen duten programen beharrik, kontuan hartuz jolas sozialak gauzatu aurretik banakako jarduerak menderatu behar dituzten ustea. Ikerketa horren emaitzek baieztatu zuten jolas-jarduerak ikasle autisten

jokabidean, taldean, talde txikitan eta bikoteka gehiago laguntzen dutela banakako jarduerak baino. Kontuan hartu behar da, ordea, ikerketa ingurune integratuen egin zela, ezintasunik gabeko umeak autismoa zuten adin bereko kideekin lan egiteko prestatuz. Horregatik, lortutako datuetan eragina zein faktorek duen garbi ez dagoenez, irekita gelditzen da faktore bakoitzaren aldagarritasun espezifikoa. Ikerketaren emaitzek erakusten dute, egoki egituraturiko jarduera integratuen eraginez, eskola-garaian ikasle autisten jokabide egokiak maizago gertatu zirela, banakako jardueretan izandako jokabide egokiak baino. Ondorioz, etorkizunean aukera egon beharko litzateke ume autistentzat programa garrantzitsuagoak, zabalagoak eta inklusiboagoak egiteko.

Kirolak integrazio-prozesuan eskain ditzakeen aukerak azaltzeko, ikerketa batzuk jasoko ditugu. «Deporte sin límites» izenburupean, Alemanian atzerriko ume emigratzaileen kirolak eskaintzen duen giza integrazioaren inguruko bi proiektu gauzatu ziren (Bóck, 1982 eta 1986). Lan horiek 1982an Kassel-eko eskolan izandako «Deporte como posibilidad de integración para extranjeros» mintegian sortu ziren. Ideia nagusia zen kirolaren «pedagogia intelektualaren» oinarrian, atzerritarrentzat eta alemaniarrentzat jolas- eta kirol-eskaintza sortzea. Taldeak aukera ikusi zuen joera etnozentrikoak (xenofobia eta atzerritarren estigmari aurre egitea) hobetzeko. Proiektuaren helburua betetzeko, beharrezkoa zela kirola eta tratamendu soziopedagogikoa baieztatu zen. Aurkeztutako eskaintzetan, ume eta gazte atzerritarrak eta alemaniarrek elkarrekin jartzea bermatu zuten parte-hartzaileek eta monitoreek. Inkestatutako subjektuen ikuspuntutik, kirol-elkarrekintza orokorraren bidez ezagutza-prozesuak eta aurreiritziak desegin ziren. Dibertsioa eta laguntasuna osagaiak izan ziren aurrebaldintza, atzerriko gazteriaren zati bati kirol-jardueretikiko interesa pizteko. Oinarrizko faktorea «instituzioen eta gusaroen» arteko lana izan zen.

Rarick-ek eta Butler-ek (1985) ikertu zituzten integrazioak buruko atzerapena duten eta ez duten ikasleen produkzio motorren inguruan dituen eraginak. Emaitzek azaldu zuten ikasle integratuen produkzio motorrak izandako hobekuntzak gainditu egiten zuela integratuak izan ez zirenean, ezintasunik gabekoen produkzioari negatiboki eragin gabe. Irakasleek gehiago esku hartu zuten gazte

atzeratuekin eta, neurri handi batean, integratuekin bereizitakoekin baino. Ikerketa horretan, eskola bereziak eskainiriko erraztasunei esker gauzatu zen integrazioa eta, alde horretatik, alderantzizko integrazioa dei dakioke. Berezitasun gisa, aipatzekoa da ume integratuei heziketa fisiko egokitan adituak ziren bi irakaslek eta laguntzaile batek irakatsi zirela; irakasle-ikasle erlazioa 1etik 8rakoak izan zen. Emaitzek azaldu zuten adimen-atzerapena duten umeak heziketa fisikoko klaseetan arrakastaz integra daitezkeela.

Jeanrenaud-ek, Karlsson-ek, Witt-ek eta Linford-ek (1971) Down-en sindromedun umeekin eginiko ikerketetan aurkitu zuten (3-5 urteko adimen-adina duten umeen berezko jolas-jardueren filmazioak analizatuz) ezintasunik gabeko umeengan gutxi gorabehera erdia zela jolas-denboraren eta lekualdatzearen distantzia. Ikertzaileek ondorioztatu zuten aktibitate ezak programaren egitura-faltarekin zer ikusia zuela; izan ere, jolas-elementuak aski ezagunak ziren bai Down-en sindromea zuten umeentzat eta bai ume arruntentzat. Geroago, Linford-ek eta Duthie-k (1970) frogatu zuten ume horiek energia gastu «normaletara» hurbil daitezkeela, jarduera fisikoko programa batean errefortzu-programa erabiltzen denean.

Ezin da alde batera utzi aurrerapen teknologikoek (adibidez, ordenagailuek) eskaintzen diguten laguntza. Elementu horiek artearen, musikaren eta mugimenduaren arloetan integrazioa errazteko balio dezakete. Burton-ek eta Lane-k (1989) irakaskuntzaren potentziazailatzat hartzen dute ordenagailua. Ordenagailuz komunikatzeko garatzen diren esplorazio moduek umea motibatu egiten dute arazoak ebaztera, eta pentsamendu logikoa eta abilezia espazio-bisualak bilatzera. Umeek beren irakaskuntzaren kontrola izateko hezkuntzan laguntzen dute. Irakaskuntza integralak arazoan ebazpenean oinarrituriko hiru faseko prozesua jarraitzen du:

- A) 1. fasea: umea, abilezia eta kontzeptuen esplorazioa egiteko, *irakaslearen zuzendaritzan* oinarritzen da.
- B) 2. fasea: umeak *autozuzendu egiten* dira kontzeptu-erlazioen arazoak, eta abar konpontzeko.

C) 3. fasea: sortutako produktua *perfekzionatu eta findu egiten* dute umeeek.

Ildo horri jarraituz, *National Curriculum Councilen*, Ingalaterran (1993), Hezkuntzaren Teknologiarako Kontseilu Nazionalak Curriculum Nazionalerako sarbidea landu zuen, informazio teknologikoaren bidez. Informazio teknologikoak zentzumen-arazoak eta arazo motorrak dituzten ikasleei curriculumerako sarbidea eman diezaieke, dislexia eta antzeko irakaskuntzarako zailtasunak konpontzeko estrategiak garatzen lagundu eta idazkera metodo alternatiboak eskaini. Hezkuntzaren Teknologiarako Kontseilu Nazionala (CNTE) arduratzen da hezkuntzan teknologiaren aplikazioa egiteaz. Teknologia ebaluatzen du, eta saiatzen da praktika egokiaren eta interesgarriaren onurak eskola- eta laguntza-agentziei ezagutarazten. CNTEko behar berezien taldeak argitalpenak egiten ditu; bertan estatuan egiten diren esperimentaziozko proiektuak goraiatzen dituzte, matematika eta hezkuntza espezifikoko zailtasunak barneratuz; esate baterako, oztopo hezitzaile larriei zuzendutako teknologia-informazioa.

1.3.- ANTOLAKUNTZAREN IKUSPUNTUTIK

HBBdun umea zentro normalizatu batean integratzeko beharrezkoa da alderdi batzuk kontuan izatea. Egokia izango da HBBdun umearen ezintasunak eta gaitasunak biltzen eta zehazten dituen txostena egitea. Brownek (1987) proposaturiko ereduak honako hauek hartzen ditu kontuan:

- ezintasunaren deskripzioa
- arazo motorren deskripzio zehatza
- edozein «ezintasun ezkuturen» deskripzioa (irakaskuntzarako zailtasunak)
- pertzepzio-arazoak

- umea jada trebea izana den oinarrizko abilezien eta kirolen zerrenda
- ingurunera egokitzeko aholkuak

Eredu horrek irakaskuntza-metodoen eta programen inguruko aholkuak ere barneratzen ditu.

Grovesek (1987) eta Brownek (1987) sailkapena zortzi etapatan jasotzen dute eta, bertan, heziketa fisikoko curriculumaren barneko behar berezien horniketak aipatzen dituzte:

- 1) Heziketa Fisiko guztiarentzat integrazio osoa.
- 2) Heziketa Fisiko guztiarentzat integrazioa, jarduera fisiko osagarridun saio bereziekin.
- 3) Heziketa Fisiko guztiarentzat integrazioa, «anciliary» laguntzarekin edo klaseetan eranskinekin.
- 4) Integrazioa aukeraturiko alderdi batzuetan eta horniketa berezia beste modalitate batzuetan.
- 5) Integrazioa kirol batzuetan eta banan-banan parte hartzea beste batzuetan.
- 6) Integrazioa kirol-programaren modalitate batzuetan, baina unitate berezi batean saio batzuk eginez.
- 7) Integrazio-eskola baten barnean, talde berezi batekin, erabat bereiziriko irakaskuntza. Talde horrek indibidualki jarduten du eta, ezintasun fisikoak dituzten umeez gain, ohiko programa nahi dutenak ere barnera ditzake.
- 8) Heziketa Fisikoa unitate berezi baten barnean egiten dute, baina barneratuta daude gainerako eskolako jardueretan ere.

MacClenaghan-ek (1982), *Oportunidades iguales para todos en educación física* lanean, ildo berari jarraituz, AEBko Hezkuntza Saileko Hezkuntza Bereziaren Bulegoak 1980an argitaratu zituen gidalerroak jasotzen ditu, gela arruntean HBBdun umek integratzeari buruz:

- 1) Ezintasunik gabeko ikasleekin programa ofizial batean parte hartzea.
- 2) Egokitzapen bereziekin, ezintasunak dituzten ikasleekin programa ofizialetan parte hartzea.
- 3) *Handicapik* gabeko umeei eskaintzen zaienetik ezberdina den Heziketa Fisiko berezia.

- 4) Ingurune berezi batean (eskola-egoitzak edo eskola bereziak), ezintasunak dituzten ikasleei eskaintzen zaizkien Heziketa Fisikoko programak.

Groener-ek (1983), *Abriendo nuestras clases de educación física a todos los niños* lanean, ume berezi batek bere ahalmena lortzeko kontuan izan beharreko alderdiak azaltzen ditu:

- Bere beharrak, gaitasunak eta helburuak ulertzen dituen hezitzailea behar du.
- Psikologigoki indartsu sentitzen den ingurunea.
- Bere jokabide-itxaropenen ezagutza izatea.
- Gelakideekin erlazionatzeko aukera izatea.
- Laguntza ingurunean, autodiziplina garatzeko aukera, eta lorpen akademikoetarako (ez sozial eta fisikoetarako soilik) aukera eta laguntza.

Integrazio-geletan, HBBdun umeak modu positiboan kokatzeko beharrezko laguntzari eta sostenguei erreferentzia eginez, Sudgen-ek (1995) laguntzaren eta integrazioaren inguruko analisia egiten du; eta laguntza bera hartzen du kokatzearen arrakasta edo porrota zehazten duen faktoretzat. Laguntzak hainbat abilezia barne-hartzen ditu; esate baterako, plangintza, antolakuntza, tresnagintza eta lankidetzak.

Integrazioaren **sostenguen arrakastan** eragina duten **faktoreei** dagokienez, sistema egokia hartzeko lantalde osoaren akordio-beharra goraiatzeko du. Plangintzaren garrantzia, parte hartzen duten irakasleek metodoak eta edukiak elkarbanatuz. Irakasle inplikatuak beren rolak zein diren jakitea ziurtatu behar da. Denbora beharrezkoa da elkartzeko, planifikatzeko, eta materiala eta konfiantza eta errespetuan oinarrituriko irakasle inplikatuaren lan-erlazioa prestatzeko.

Laguntza norentzat izan behar da? Pentsatu egin behar da, gela barruan nork lagunduko duen, zer motatako laguntza eskainiko den eta laguntza nola eman behar den. Horretarako, eskolaren barrutik eta kanpotik dauden baliabideak aztertuko dira. Laguntza motak izan daitezke aholkularitza eta curriculum-materialak,

eta baita software-programak, aholkularitza-tresnak eta curriculumak osatzen duten elementuak ere. Kontseilu informalek, laguntza gisa, behar bereziko beste koordinatzaileen edo hezkuntzako psikologoaren informazioa eskainiko dute. Egituraturiko kontseiluek eskolaren edo herrialde-eskolen bidezko laguntza eskainiko dute. Klasetik kanpoko ikasleentzako laguntzak dira guraso-elkartek, talde txikiek edo banakoek eginiko lanak. Gela barneko laguntza, berriz, hau izan daiteke, besteak beste: ikasleei materiala eta baliabideak egokitzea, argibideak errepikatzea eta azaltzea, eginkizunetan ikasleei laguntzea, berehalako *feedbacka* eskaintzea eta emaitzak ezagutzera ematea, zuzenketa-prozedurak ezartzea, nor bere autokontrola erraztea, epe laburreko helburuak ezartzea eta betearaztea ziurtatzea, ikasleak aukerako edo erlaziozko eginkizunetara bideratzea, jokabide desagokiak aurreikustea eta kudeatzea, eta motibazioari eta interesari eusteko estimuluak ematea, laguntzea eta onartzea.

Zentro integratuetan **irakasleei eskainiriko laguntzari** dagokionez, Ingalaterrako Ikasketa Planen Kontseilu Nazionalak (CNPE) ikerketa bat egin zuen 1992an, HBBko umeekin eta ikasle bereziekin lanean aritzen diren irakasleen informazioa jasoz. CNPEk lau ikasle talde identifikatu zituen, horientzat Plan Nazionalaren bidezko sarbidea eta progresioa eskubide eta erronka bihurtuz. Talde horiek, irakasleei laguntza ematerakoan, CNPEren lana zuzentzeko kalifikatuak izan ziren.

HBBko ikasle guztiek helburu bera zuten eskoletan barneratu nahi ziren talde horiek, eta hor sartuko ziren zentro arrunteko unitateen eta eskola arruntetako LEAko (1981eko HBBko umeen heziketa-aktaren definizioaren arabera, England) laguntza-zerbitzuen laguntza jaso behar zutenak ere. Ikerketa egiteko, honako pauso hauek eman ziren, ikasketa-planak berrikusketa jarraituan mantentzeko helburuarekin:

* Estatuko Idazkaritzari ohartarazi ikasle guztientzako Ikasketa Plan Nazionalerako sarbidea, irakasleei hornitzen laguntzeko.

* Irakasleei bermea eman HBBdun ikasleekin egiten duten lanean. Ebaluazioaren emaitza gisa, irakasleek, heziketa bereziaren arloari dagokionez, zazpi gai amankomun nagusi ezagutarazi zituzten:

- 1) Ikasle bakoitzak ikasketa plan zabal, orekatu eta aipagarria izateko duen eskubidea indartsu defendatzea.
- 2) Arduragabekeria kontzeptua ezeztatzea ukatzea eta, HBBko ikasleak Ikasketa Plan Nazionalera sartu ahal izateko, hori hurbilketa positiboagoaz aldatzeko eskatzea.
- 3) Irakasleek gorai patzen dute Ikasketa Plan Nazionalak curriculumaren zati bat betetzen duela, HBBko ikasle guztientzat. Era berean, curriculum bidezko lan esperimental baterako sarbidea, heziketa pertsonala eta soziala, eta jardueren aberastasuna ekarri beharko litzateke.
- 4) Praktika egokiaren adibidea identifikatzeko eta partekatzeko, Sare Nazionalaren garapenean Ikasketa Plan Nazionala aktiboa izatea eskatu behar da.
- 5) Honako hauek onartzen dituen balorazio-sistema zabalagoaren beharra identifikatzen dute:
 - a) HBBko ikasleak onartzea, eginkizun arruntan balorazioa egokia ez denean.
 - b) Bereziki gaitutako ikasleek erakutsitako pentsamenduaren kalitatea eta konplexutasuna.
- 6) Testamentua idaztean eta urteko azterketan irizpide garbiak eskatzea, profesionalak egoki prestatzeko eta horren bidez ikasleak Ikasketa Plan Nazionalera eta erlijo-hezkuntzara sartzeko.
- 7) Hainbat teknika erabiliz, irakaskuntza desberdintzearen inguruan bideratzeko beharra identifikatzen dute, HBBko umeentzat eta bereziki gaitutako ikasleekin batik bat.

Euskal Herrian, Pedagogiaren Orientazio Zentroak egiten ditu txosten horiek, bertan laguntza pertsonalaren funtzioa eta beharra aurreikusiz. Eskola-zentroetan HBBko umeak aholkatzen eta laguntzen dituzten talde multiprofesionalak osatzen dituzten profesionalak dira laguntza pertsonala, logopedak, fisioterapeutak, psikologoak, laguntzako irakasle bereziak eta hezitzaileak.

1.4.- ORDENA KRONOLOGIKOAN, LAN HONETAN JASOTAKO IKERKETA GUZTIEN LABURPEN-TAULA

AUTOREA	URTEA	IKERKETA	JARDUE RA FISIKOA	ADINA: KURTS OA	EMAITZA
McClenaghan	1981	«Oportunitades iguales para todos en educación física»	Heziketa Fisikoa	Oinarrizko Heziketa, Lehen eta Bigarren Hezkuntza	La mayoría de estudiantes con handicap pueden y deben estar integrados con éxito en el programa regular de educación física. Algunos necesitarán una colocación en programas especializados.
Groener, M.	1983	«Abriendo nuestras clases de educación física a todos los niños. Un punto de vista»	Heziketa Fisikoa	Oinarrizko Heziketa, Lehen eta Bigarren Hezkuntza	El lograr un educación “especial” para niños excepcionales por la integración en programas escolares regulares no tendrá éxito sin una modificación del sistema. Miles de niños están ahora en clases regulares y no tienen éxito, están frustrados y aislados socialmente.
Broadhead, G.	1985	«La colocación de niños con handicap leve en la educación física integrada»	Heziketa Fisiko erregularra	5-12 urte	1 ^a solo la colocación del niño en situación de integración no logra el éxito de la misma. 2 ^a Es condición indispensable la colaboración de los profesores que más conocen al niño para la elaboración y supervisión del programa individualizado.

Karper, W. eta Martineck, T.	1985	«La integración de niños con y sin handicap en la educación Física elemental»	Heziketa Fisiko erregularra	Lehen Hezkuntza zako 1., 2. eta 3. mailak	La mayoría de profesores de EF anticipan problemas motrices por parte de los niños con handicap, sin embargo al realizar las evaluaciones no percibieron diferencias de comportamiento entre los niños con y sin handicap. Los programas integrados aumentan el autoconcepto de los niños con handicap.
------------------------------	------	---	-----------------------------	---	---

AUTOREA	URTEA	IKERKETA	JARDUE RA FISIKOA	ADINA: KURTS OA	EMAITZA
Santomier, J.	1985	«Educadores físicos, actitudes e integración: sugerencias para entrenadores de profesores»	Heziketa Fisiko erregularra	Oinarrizko Heziketa, Lehen eta Bigarren Hezkuntza	<i>Handicap</i> dun subjektuen ezagutzak eta kontaktuak, eta HFn pertsona horiekin erlazionaturiko abilezia hobek iradokitzen dute eragin positiboa izango luketela integratziora bideraturiko irakasleen iritzietan eta jarreran, eta subjektuengan beraiengan. .
Rarick, G eta Butler, A.	1985	«Los efectos de la integración sobre la producción motriz de estudiantes con y sin retraso mental»	Heziketa Fisiko erregularra eskola berezian.	Lehen Hezkuntza zako 3. eta 6. mailak.	Emaitzek iradokitzen dute, heziketa egokiarekin, adimen-atzerapena duten umek (HFn integratuta daudenean) motrizitatean onurak dituztela, <i>handicapik</i> gabeko kideen produkzio motorrean eragin negatiborik izan gabe.
Craft, D. eta Hogan, P.	1985	«Desarrollo del autoconcepto y autoeficacia : consideraciones para la integración»	Heziketa Fisikoa eta kirola.	Umeak eta unibertsitateko gazteak.	Jarduerak menderatzea, ahoz limurtzea eta modelatze-esperientziak barnetatzen dituen HFk hobetu dezake <i>handicap</i> dun subjektuen autoefikazia, eta horien jokabide-bilduma areagotu. Horrela, zentro

					arruntetan, ume horiek onura jaso dezakete, autoefikazia eta autokontzeptu-sentimendua hobetzeko diseinatutako esperientzien bidez.
Hegarty, S., Hodgson, A., Clunies-Ross, L.	1986, Inglaterra. 1988, Espainia.	«Aprender juntos. La integración escolar»	Heziketa Orokorra	Eskola-hezkuntza.	Heziketa-estrategiak eta curriculumaren egokitzapenak aztertzean oinarritzen da ikerketa, eta irakaslearen alderdi teorikoak eta praktikoak zehaztean.

AUTOREA	URTEA	IKERKETA	JARDUE RA FISIKOA	ADINA: KURTS OA	EMAITZA
Böck, F.	1982-1986	«Deporte sin límites: posibilidades del deporte en la integración social de niños emigrantes extranjeros»	Jolasak eta kirola.	Umeak eta gazteak.	Jolasean eta kirolean, ume eta gazte atzerritarren eta alemanen arteko elkarrekintzak erraztu egin zituen aurreiritziak ezabatzeko prozesua eta ezagutza; dibertsioa eta laguntasuna izan ziren gazte atzerritarren artean kirolarekiko interesa pizteko osagai nagusiak. Oinarritzko faktorea «instituzioen eta gurasoen lankidetzaren» izan zen.
Brown, A.	1987	«La integración	Heziketa	Eskola-	Dantza, gimnasia,

		de niños con problemas de movimiento en el currículo general de deportes»	Fisikoa eta kirola.	adineko umeak eta gazteak.	atletismoa, igeriketa eta antzeko bana-banako jarduera fisikoetan, murrizketa motorrak dituzten umeen integrazioak ez du arazorik aurkezten; hala ere, kirol-jardueren integrazioa zaila da Bigarren Hezkuntzan, jarduera talde-lankidetzan eta aurkarietako oposizioan oinarritzen baita.
Archie, V. eta Sherrill, C.	1989	«Actitudes hacia sus pares con handicap de niños mainstream y no mainstream en la educación física»	Heziketa Fisikoa.	Lehen Hezkuntza zako 5. eta 6. mailak.	<i>Handicap</i> dun umeei dagokienez, ez dago ume integratu eta ez-integratuen arteko ezberdintasun esanguratsurik, kontaktuaren edo sexuaren eraginez. Jokabideak hobetzeko asmoarekin, ongi egituraturiko eta diseinaturiko interbentzioak aholkatzen dituzte aurreko ikerketek.

AUTOREA	URTEA	IKERKETA	JARDUE RA FISIKOA	ADINA: KURTS OA	EMAITZA
Hottendorf, D.	1989	«La integración de	Dantza	Umeak eta	Ume gorren integrazioarako faktore

		niños con y sin sordera en clases de danza».		gazteak	garrantzitsuenak dira irakasleen jarrera, komunikazio modu guztietara irekia egotea, eta araubidearen ezagutzara irekia egotea. Zeinu bidezko lexikoak, eta keinuak egiteko, seinalatzeko eta ukitzeko gaitasunak ikasle gorren integrazioa ahalbidetu dezake dantzako eskoletan.
Burton, E. eta Lane, C.	1989	«Empleando el ordenador para facilitar la integración de arte, música y movimiento».	Heziketa Fisikoa – ordenagai luaren laguntza.	Umeak eta gazteak	Hezkuntzako hainbat arlotan ikasitako kontzeptuen ordenatuen bidez, oinarrizko ordenatuen hizkuntza sor daiteke, eta produktu horiek diseinua (artea) eta animazioa (mugimendua) duten tauletan sar daitezke; edertu/hobetu daitezke, soinua gehituz (musika).
Schleien, S., Mustonen, T., Rynders, J. Eta Fox, A.	1990	«Los efectos de actividades lúdico-sociales sobre el comportamiento de niños autistas».	Jolasa banaka, bikoteka eta taldeka.	5-12 urte	Ikerketak erakutsi du ikasle autistengan jarduera integratuak, jolas-jokabide altuarekin egituraturikoak eta taldeko joko-jolasak maizago sortzen dituela jokabide egokiak, banakako joko-jolasek baino.
Block, M. Y Krebs, P.	1992	«Una alternativa para el ambiente menos restrictivo: un continuum de apoyo para la EF regular».	Heziketa Fisikoa	Eskola-adina.	Gutxiago mugatutako ingurunerako aukera: autore horiek Heziketa Fisikoa egiteko etapa ezberdinak proposatzen dituzte, ezintasunaren arabera beharrezkoa den laguntzarekin batera.
National Curriculum Council	1993	«Necesidades Especiales y Plan de Estudios Nacional: Oportunidades y desafíos».	Heziketa Orokorra	Eskola-adina	Eskola berezien, zentro arrunten unitateen eta laguntza bereziko zerbitzuen ikerketan oinarrizko txostena.

AUTORE A	URTE A	IKERKETA	JARDUE RA FISIKOA	ADINA: KURTS OA	EMAITZA
Doll- Tepper, G. <i>et al.</i>	1994	«Actitudes de los profesores, entrenadores y estudiantes universitarios sobre la integración de los estudiantes con incapacidades en la EF regular y deporte».	Heziketa Fisikoa.	Eskola eta unibertsitatea	Integrazioari begira jarrera positiboa ikus daiteke. HFko irakasleek, beste espezialista batzuekin alderatuz, ez dute HFn integrazioa egiteko jarrera hain positiboa (hizkuntza-irakaslea, historiakoa, eta abar). Horrek HFko irakasleen prestakuntza-beharrean eta curriculumak egitean pentsarazten du.
Camuñas, S. eta Dordal, E.	1994	«Las adecuaciones curriculares individualizadas en educación física: síndrome de Down».	Heziketa Fisikoa	9 urte	HBBdun ikasleen garapena hobetzen duen tresna gisa, CNEk duen eraginkortasuna aztertzea zuen helburu esperientzia horrek. Aukeraketa-prozesuan, maila ertain-altuko Down-en sindromea zuten umeak zeuden, eta horiek, helburuei edo edukiei eta baliabide pertsonal berezietan zegoenez egokitzapen-beharrik ez izan arren, egokitzapenak beharrezko zituzten estrategia hezigarrietan zegoenez. HBBdun umeen geletan CNE garatzea komenigarria dela baieztatu zuen esperientziak, kontuan hartuz horrek ikasleentzat eta irakasleentzat dakartzan onurak.
Utley, A. eta Sudgen,	1995	«Necesidades Educativas Especiales y	Heziketa Fisikoa	Oinarrizko Heziketa	Autoreek orientabideak proposatzen dituzte integrazioan HF

D.		Educación Física»		, Lehen eta Bigarren Hezkuntza	praktikatzeko.
Heikinaro - Johanson, P., Sherrill, C., French, R. eta Huunka, H.	1995	«Modelo de servicios de consulta en educación física adaptada para facilitar la integración»	Heziketa Fisiko Egokitua	Oinarrizko Hezkuntza.	Ikerketa horren helburua zen, HFEn HBBdun ikasleen integrazioan Oinarrizko Hezkuntzako tutorei laguntzeko kontsulta-eredua garatzea. Emaitzek agerian utzi zuten irakasle, laguntzaile eta ikasleek onurak jasoko zituztela aholkulariaren bisitekin eta hark garatutako ikasketa-planekin.

2.- HEZIKETA FISIKOKO PROGRAMAK BERRIKUSTEA

- **HUTLY-K (1995) AURKEZTUTAKO PROGRAMA:**

Lehen Hezkuntzako bigarren etaparako Heziketa Fisikoko programa (7-11 urte).

KIROLAK:

a) Mugatutako talde-kirolak eta talde-kirolen eta banakako kirolen bertsio sinplifikatuak ulertzea eta jolastea, honako estilo hauek onartuz eta kontuan hartuz: inbasiozkoak (adibidez, areto-futbola, *netballa*), kolpatu eta harrapatzeak (adibidez, *beisballa*, *cricketa*), eta sare edo paretadun talde txikikoak (mini-tenisa).

b) Abilezia eta praktika amankomunak, eraso, defentsa, indarrez hartzea, kolpea eta harrapatzea barneratuz.

c) Jaurtiketa, jasotzea, kolpea eta baloiarekin mugitzea hobetzea, aipaturiko kirolelan.

GIMNASTIKA-JARDUERAK:

a) Biratzeko, kulunkatzeko, salto egiteko, eskalatzeko, balantza egiteko eta eskuekin eta hankekin mugitzeko hainbat modu; ekintza horiek zoruaren gainean eta aparatuekin egokitzea, praktikatzea eta hobetzea.

b) Gimnastika-ekintzekin forma, abiadura eta norabide-aldaketak bideratzea.

c) Ekintza luzeagoa praktikatzea, perfektzionatzea eta errepikatzea, zoruaren gainean eta aparatuekin, gero eta mugimendu-sekuentzia konplexuagoak lortuz.

DANTZA:

a) Mugimenduak osatzea eta kontrolatzea, forma, tamaina, norabide, maila, abiadura, tentsio eta jarraitasunaren aldaketen arabera.

b) Garai eta toki ezberdinetako dantzak, eta Britainia Handiko dantza tradizionalak barneratzea.

c) Sentimenduak, gogo-aldarteak eta ideiak adieraztea musikari erantzunez, eta pertsonak eta narrazio errazak sortzea dantza bidez eta hainbat estimuluri erantzunez.

JARDUERA ATLETIKOAK:

- a) Lasterketako oinarrizko teknikak garatzeko eta perfektionatzeko; adibidez: distantzia laburrak, distantzia luzeak, erreleboak.
- b) Jaurtiketak; adibidez: zehaztasuna, distantzia.
- c) Saltoak; adibidez: altuera lortzeko, distantzia.
- d) Norberaren ekintza neurtu, alderatu eta hobetzeko.

ABENTURAZKO ETA ZERUPEKO JARDUERAK:

- a) Zerupeko eta abenturazko jarduerak gauzatzea; adibidez: orientazio-jarduera ingurune ezberdinetan (parkean, basoan, hondartzan...).
- b) Erronka eta arazo fisikoak ebaztea (adibidez, oztopo-zirkuituak, gimnasia-tresnak, abentura-jolasak).

IGERIKETA:

- a) Laguntzarik gabe, gaitasunez eta ziurtasunez 25 metro igerian egitea.
- b) Uretan konfiantza garatzea; atsedean hartzen, flotatzen eta bermatze-jarrera egokia hartzen ikastea.
- c) Propultsiorako besoak, hankak edo biak erabiliz, hainbat baliabide ikastea, eta besakada eraginkorrak garatzea, buruz behera zein bizkarrez.
- d) Uretan segurtasun- eta biziraupen-irizpideak eta praktikak.

- **AUTOKONTZEPTUAREN «GAITASUN FISIKO ETA PSIKOMOTORRA» DIMENTSIOAREN INTERBENTZIO-PROGRAMA.**

Broc Cavero-k (1992) egin zuen, 5-8 urte arteko umeentzat. Hamasei saioz osaturiko programa da, eta bertan zehazten dira, modu globalean eta ez saioka, landutako eduki psikomotorrak. Programaren edukiak:

- 1.- Gorputz-eskema ezagutzea: gorputzeko zati nagusiak kokatu eta izendatu. Zati bakoitzaren funtzioak irakatsi, baita ikusten ez direnena ere (bihotza, birrikak).
 - Ispiluaren aurrean ezagutzea; giza irudiaren marrazkia osatu, eta marrazten dena hitzez adierazi.
 - Neurtu, konparatu, kideak behatu...

2.- Jarrera, oreka eta espazioa ezagutzea. Jarrera egokiak hartzea. Espazioan zehar ibilaldiak egin erreferentzia-puntu zehatzekin. Jarrera ezberdinetan orekari eustea. Lateralitate-ariketak egitea.

3.- Jolas sinbolikoak, irudikapenezkoak eta sentimenduak adieraztekoak egitea. Musika-estimuluekin eta mimoaren bidez, jarduerak gauzatzea.

4.- Elkarrekin erlazionaturiko jarduerak egin: ispiluaren jolasa, gorputz guztiko mugimenduekin musika interpretatzea.

- **HEZIKETA FISIKOAREN PROGRAMA: CURRICULUMA NORBANAKOARI EGOKITZEA (CNE)**

Bartzelonan, Camuñas Clamores-ek eta Dordal Culla-k (1994) egina.

Egokitzapena egin zitzaion eskola arrunteko Lehen Hezkuntzako 2. mailan zebilen 9 urteko Down-en sindromea zuen neska bati.

Heziketa Fisikoaren edukiak:

- * Begi-eskuen koordinazioa. Presioa eta esekidura. Objektuak, jauziak eta jaurtiketak erabiltzea.
- * Oposizio-lankidetzak joko-jolasak, arau errazekin.
- * Sostengu-oinarria egokituz, oreka estatikoa.
- * Espazioaren nozioak (gora, behera, barnean).
- * Oreka dinamikoa altueran eta plano okerrean.
- * Koordinazioa, zehaztasun-jaurtiketa, harrera.
- * Koordinazio lokomotorra, oztopo-jauziak.
- * Oposizio-lankidetzarako joko-jolasak.
- * Denbora-nozioak (hasi-gelditu, azkar-poliki).

- **PERTZEPZIO-ARAZOAK GAINDITZEKO PROGRAMA**

- **Newell Kephart-en programa:**

Entrenamendua arbelean	Entrenamendu sentsorioromotorra	Entrenamendu okulo-motorra	Formen pertzepzioaren entrenamendua
Norabide-ariketak	Jarrera-ariketak	Begi-mugimenduaren kontrola	Puzzleak eraiki
Trazaketa-ariketak	Oreka-ariketak	Zoruan trazaturiko zirkuituan ibiltzen jarraitu	Baloiak toki ezberdinetan kokatu
Kopiatzeko ariketak	Oreka eta jarrera jorratzen dituzten ariketak	Zoruan trazaturiko zirkuitua egin, patineekin lekualdatuz	Baloiak forma ezberdinetan kokatu

- **Cratty-ren programa, garapen motorrarentzat:**

1. Gorputzaren pertzepzioa eta espazioan duen kokapena
2. Oreka
3. Lokomozioa
4. Indarra, erresistentzia, malgutasuna
5. Baloiak hartzea eta jaurtitzea
6. Esku-abileziak
7. Mugimendua eta pentsamendua

- **Glen DoAlman-en eta Carlo Delacato-ren programa. Honako honetan oinarritzen da:**

1. Subjektuaren garapenaren eta espazioaren garapenaren laburpena.
2. Umeak entrenatu egin behar du bere garunarekiko bitartekotasuna izateko eta, bere lehentasunei dagokienez, orekatua izan behar du (eskuineko begia, eskuineko eskua, eskuineko hanka).
3. Garuna, bere prozedurengatik errehabilitatzen da. Autoreek diote beren programak terapeutikoak direla eta sendatzea lortzen dutela.

3.- ANALISI KRITIKOA.

«Integrazio» hitza normalizazioaren sinonimotzat erabili izan da. Baina integrazioa normalizazioaren alderdi bat besterik ez da. Groner-entzat (1983), integrazioa HBBdun umeei heziketa-zerbitzuak hornitzeari dagokio. Integrazioa da subjektuak, bere egoeraren maila kontuan izan gabe, ahalik eta gutxien mugaturiko eta ahalik eta produktiboena den ingurunean parte hartzeko duen eskubidea.

Dunby-k eta Cullen-ek (1988) eta Román Sánchezek eta García Villak honela definitzen dute: estigmak deuseztatzea, giza irabaziak lortzea, gurasoen parte-hartzea, heziketaren eraginkortasuna, eta sano diren kideekin erlazioa. Hainbat ikerketatan ikusi den bezala, emaitzak onuragarriak dira helburu horiek betetzeari dagokionez baina, beste kasu batzuetan, integrazioaren alderdi batzuetarako zailtasuna eta aldatzeko beharra ikusi da.

Integrazio-prozesuaren ebaluazioak agerian uzten ditu hobetu beharreko alderdiak. Román Sánchezek eta García Villak (1990) integrazioan arazoak aurkitu zituzten eta komenigarritzat jo zuten «integrazio-umeen psikopatologia» kontuan izatea; horretarako, aurrebaldintzak beharrezkoak dira umea integrazio-geletan kokatzeko. Eskola arruntetan giza baliabideen, baliabide administratibo eta ekonomikoen falta izanez gero, ezingo da integrazio sozial duinik egin. Hegarty-k, Hodson-ek eta Clunies-Ross-ek (1988) bi motatako integrazioak bereizi zituzten:

1. Integrazioa, kokapen gisa. Bereizketaren amaierarako lehen urratsa da.
2. Integrazioa, heziketa gisa. Uste da eskola gai izango dela ikasleen irakaskuntza bultzatzeko eta guztientzat irakaskuntza egokia egiteko baldintzak sortzeko. Eskolaren eraldaketa egiteko, oinarria curriculumean aldaketak egitea izan behar da: ikasleei irakasten zaiena, zergatia, egiten den modua, eta bere aurreratzea behatzeko modua (21. or.).

Euskal Autonomia Erkidegoan, «Eskola ulerkorra eta integratzailea» txostenean Hegarty-k, Hodson-ek eta Clunies-Ross-ek «irakaskuntza integratzailea» proposatzen duten ildo berean, integrazioan aurrerapenak eraginkorrak izan direla ulertzen du, baina gabeziak ezkutatu gabe. Gabezia esanguratsuenen artean honako hauek aipa daitezke:

- Informazio egokiaren falta eta, zehazki, zentro askoren (eta, oro har, gizartearen beraren) sentsibilizazio eskasa.
- Plana argitaratu ostean, arauen garapenaren eskasia eta jarraipen falta.
- Etengabeko beharrei erantzun ezin izan dien baliabideen urritasuna, frustrazio-sentsazioa sortuz.
- Muga arkitektonikoak kentzeko muga.
- Laguntzak eta bekak modu malguan emateko zorrotasun administratiboa.
- Heziketa bereziko eskolen etorkizunari begira, mugagabetasuna.
- Batzuetan, garatutako baliabideen aplikazio desegokia eta ez-integratzailea.
- Departamenduen eta elkarten autarkia, aldi berean beharrezko baliabideak garatzea zailduz.
- Erabiltzaileen desorientazioa eta dauden zerbitzuen errentagarritasun desegokia, dispertsioa eta koordinazio-eza aitzakia hartuta.

Ezintasunak dituzten pertsonen normalizaziorako bide irekian, azken urteotan, *inklusio* hitzarekin definitzen den joera berria dago. *Inklusioak*, jarduera fisikoen eta kirolen arloan, «lehiaketa arruntean, ezintasun minimoak dituzten aukeratutako atleten parte-hartzea» adierazten du (De Potter, 1994). Gai hori, gaur egun, eztabaidarako arrazoi da, ezintasunak dituzten atleten agerraldi handietatik hasita. Egungo jarduera fisikoko eta kirol-programei dagokionez, integrazio-maila ezberdinak daude. Lau taldetan sailka daitezke Jarduera Fisiko Egokituaren (JFE) arloan egiten diren programa motak:

1. Ezintasun ezberdinekiko, programa bereizleak
 - Eskola berezietan Heziketa Fisiko egokitua.
 - Kirol egokitua birgaitze-programetan.
 - Ezintasunen tratamenduan aritzen diren kirol-klubak.

- Kirol-lehiaketak ezinduentzat, paraolimpikoentzat, *special olympics*entzat, eta abarrentzat.

2. Programa paraleloak:

- Kirol-instalazioak elkarrekin erabiltzea.
- Joko olinpikoetan eta paraolimpikoetan elkarrekin aritzea.
- Kirol-gertakari moduan, ezinduentzako kirol-lehiaketen erakustaldia.

3. Programa integratuak:

- Kirol-eskoletan eta klubetan jarduera fisikoak; bertan, umeak, gazteak eta helduak integratuta daude jarduera hezitzaile eta asialdikoetan.

4. Inklusioa:

- Ohiko lehiaketetan, ezintasun minimoak dituzten aukeratutako atleten inklusioa.

Ezintasuna duten pertsonen inguruan eta, zehazki, heziketa fisikoaren eta kirolaren barruan, inklusioa oso epe luzean lortu beharreko helburua izango da; horregatik, Doll-Tepper-ek (1994) inklusioa lortzeko hainbat ideia garrantzitsu aipatzen ditu, maila sozialean:

- Estatu, autonomia, probintzia edo herri bakoitzak azkartu egin beharko luke ezintasunak dituzten pertsonen eskubideak eta kirol-instalazioetarako poza erraztuko lieken arau berriak sartzeko prozesua.
- Toki guztietan (eskolan, klubetan edo beste elkarte batzuetan) eskaini beharko litzateke heziketa fisikoa eta kirola, era integratuan.
- Eremu akademikoan zein ez-akademikoan, integratziora bideratu beharko litzateke irakasleen formazioa.
- Kirolaren eremuan, ezintasuna duen pertsonaren integrazio-prozesuan garrantzitsuak diren faktoreen kontzientzia hartu beharko lukete eragile sozializatzaileek, familiak, lagunek, ezinduen lagunek, irakasleek, eta abarrek.
- Gazteek eta emakumeek parte-hartze txikia dute jarduera fisikoan eta kirolean. Beharrezkoa da estimulu zehatzak garatzea eta kanpaina egokia sortzea.
- Komunikabideek, kirolaren arloan, garrantzi txikiagoa eskaini beharko liekete ezintasunei eta handiagoa, aldiz, gaitasunei.

- Nazioarteko kirol-ekitaldiak ezintasunak dituzten kirolariek parte hartzeko foro izan beharko lirateke. Horretarako, ezinbestekoa da bi taldeen antolatzaileen arteko harreman estuagoa; adibidez, Nazioarteko Batzorde Olinpikoa (NBO) eta Nazioarteko Batzorde Paraolimpikoa (NBP).
- Indartu egin beharko lituzkete kirol-diziplina eta kirol-zientzien azpidiziplina ezberdinen ikerketak. Horretarako, NBPK Kirol Zientziaren Batzordea sortu du, mundu guztian, ikerkuntza aurreratzen duten jarduerak bultzatzeko estrategia garatzeko.

Heziketa Fisiko Integratuaren programak lantzen ari dira hainbat eskolatan, baina lan honen autoreak ezagutzen duen EAEko errealitateak agerian uzten ditu honako behar hauek:

- 1) Heziketa Fisikoko irakasleek formazio jarraitua jasotzea, arlo horretan sortzen diren heziketa-beharrei erantzuna emateko.
- 2) Heziketa Fisikoko integratuzko gida didaktikoak sortzeko esfortzua gauzatzea (azken urteotan, HFri dagokionez, eskaintza interesgarria dago merkatuan).
- 3) Modu orokorrean, Heziketa Fisikoko klaseetan integrazioa praktikara eramatea. Hau da, eskolatan integrazioa HBBko ikasleekin egiten den gisan, zailtasun handiagoko kasuetan ere egitea. Horrelako kasuetan, ezintasun motorrak dituzten HBBko ikasleek ari gara.

1994-1995 ikasturtean, autonomia-erkidegoko hiru probintzietako zentroetan ASPACE Garun Paralisien elkarteei kontsulta egin eta, baieztatu zen eskola arruntetan ziren ume integratuek ez zutela Heziketa Fisikoko klaseetan parte hartzen; ordu berean beste jarduera bat egiten zuten. Gasteizko kasuan, umeek jarduera fisiko bereziak egiten zituzten, eskolaz kanpoko orduetan.

Laburbilduz, giza normalizaziora bideratutako helburuak zehaztuta daude, baina prozesuan poliki aritzea beharrezkoa da, jarrera-aldaketa eta normalizazio-maila altuagoa lortuz, eta beharretara eta aukeretara ahalik eta modurik hoberenean egokituz.